

Amazona anakroniko bat

Idazlea: Marina Tsvetaieva. Itzultzailea: Jose Mari Berasategi. Argitaletxea: Erein/ Igela.

Nagore Fernandez -
2022ko ekainak 26



Edgar Allan Poe idazle (eta teoriko) entzutetsuak esango lukeen moduan, eserialdi bakar batean irakurtzeko obra apailatu du Erein argitaletxeak Igelarekin elkarlanean. Literatura Unibertsala bildumaren parte da Joxe Mari Berasategik euskarara ekarritako Marina Tsvetaievaren *Ene anaia femeninoa* eskutitz luzea. Hiru zati nagusitan ardaztu dute liburua: hasieran itzultzailearen oharra aurkituko du irakurleak, zeinetan protagonista dugun idazlearen biografia xehatzen den. Idazlearen lehen soslai horrek testuingurua eta markoa eskaintzen dizkio obrari, eskutitza idazten duen unean idazlea bere bizitzako zein unetan eta nola dagoen argitara ematen duen heinean. Gero dator obraren funtsa eta eskutitzean biltzen diren hausnarketa oro. Eta azken unean, Ghislaine Limonten 1989ko iruzkin bat dakar testuak, eta bertan Tsvetaievaren biografia literarioa eta mintzagai dugun obraren bilakaeraren zenbait datu ematen dira.

Marina Tsvetaievak Natalie Clifford Barney idazleari ondutako eskutitza dugu obraren funtsa, eta harreman lesbikoaren inguruko diskurtso eta hausnarketak dakartza lehen lerrora. Idazle eta pentsalari klasiko garaikidea dugu Tsvetaieva, eta oximoron horretan datza, nire ustez, idazlearen (eta obra honen) meritu handiena. Izan ere, liburuaren lehen edizioa 1918koa izan arren, aurkitu dugun pentsamoldeak ez dio garai eta testuinguru horri dei egiten, askoz ere ondorio eta kezka garaikideagoak mahaigaineratzen baititu. Euretako bat eraikitzen eta iradokitzen den emakume konstelazioaren ideia dugu: «[...] bigarrenean, arraza guziari, kausa guziari, emazte guziei bakar batengan» (34). Alegia, emakumeak gorputz kolektibo bakar bat bezala deskribatzen zaizkigu liburuan. Eta horren osagarri, aipatzen diren erreferente klasiko femenino (eta feminista) guztiak izenda daitezke; Safo, edo Amazona bera, esaterako. Azpimarragarria da, halaber, gizarreak eraiki dituen feminitate eta maskulinitate ereduak identifikatzeko eta argiro deskribatzeko egileak erakutsi duen gaitasuna, XIX. eta XX. mendeetako Errusian hazitakoa izanagatik; bai eta, amatasunaz eraiki duen diskurtsoa ere. Emakumeen arteko amatasun ezinezkoa salatzeaz gainera, «emakumeak=amak» binomio esentzialistaren indarra eta inposizioa agerian jartzen baititu.

Azkenik, itzultzailearen hautu linguistikoa ekarri nahiko nuke lerroetara; oraingo honetan, aitortu behar dut Tsvetaievaren hitzak oso urrun sentitu ditudala, urrunegi aukeran. Euskal literatura klasikotik hurbileko euskaratik dihardu itzultzaileak, eta ez dakit ez ote den erregistro jasoegia horren testuinguru intimo batetik idatzitako obra bat berridazteko. Dena den, erabilera linguistikoaren hautua gustu kontua baino ez dela ausartuko naiz esatera, aldaera horretan usatua denak biziki eskertuko baitu; eta ezin ukatuzkoa da, gainera, zuzentasunean eta aberastasun lexikoan itzultzaileak egin duen lan fina.

Dudarik barik, Marina Tsvetaieva aitzindarietako bat ere badela erakusten digu mintzagai dugun obrak. Aitzindaria emakume idazle/sortzaile bezala ez ezik, bere lanetan tartekatzen diren hausnarketa feministengatik ere. Aitzindari ahaztua.

Sareko BERRIAzalea:

Irakurri berri duzun edukia eta antzekoak zure interesekoak badira, eskari bat egin nahi dizugu: *Berria* diruz babestea.

Zuk eta zure gisako sareko milaka irakurlek egindako ekarpenarekin, eduki gehiago eta hobeak sortuko ditugu. Eta, zuekin osatutako komunitateari esker, publizitateak eta erakundeen laguntzek bermatzen ez diguten bideragarritasuna lortuko dugu.

Euskarazko kazetaritza libre, ireki eta konprometitua eskaini nahi dizugu egunero; bizi zaren munduaren eta garaiaeren berri ematen segitu.

Izan BERRIAlaguna 

Gaiak

Joxe Mari Berasategi

Marina Tsvetaieva

Erein

Igela argitaletxea

Itzulpena

Literatura euskaraz

Literatura

Arteak eta kultura

Euskal Herria

Albiste gehiago



«Osagarri mental eta fisikoaren aldeko guduka da enea»

AINIZE MADARIAGA

Reunion uhartea trantzean jartzen da Warok erroetatik edan duen maloya kultura kantatzen duelarik. Debekatua izan den kulturari «duintasuna» itzuli dio. Errobiko festibalera jinen da.



Tabakalerako oihana

MIKEL LIZARRALDE


Carlos Casas zinemagilearen 'Mutia' soinu instalazioak oihaneko landa grabazioak eraman ditu Donostia



Ertibil 2022: zuriuneak, deabruak, pixelak

INIGO ASTIZ

Ertibil lehiaketan parte hartutako hamazortzi artistaren lanak jarri dituzte ikusgai Bilbon



Euskal artearen 40 poetika

IRAIA VIEIRA GIL

BBVak bere bildumaren parte diren 30 euskal artistaren obrak jarri ditu ikusgai Bilboko San Nikolas jauregian. Herrero, Akerreta eta Luzuriagaren obrak daude tartean

Astekaria

Asteko gai hautatuekin osatutako albiste buletina. Astelehenero, ezinbesteko erreportajeak, elkarrizketak, iritziak eta kronikak zure posta elektronikoa.

Pribatutasun politika eta Lege informazioa irakurri ditut eta onartzen ditut

idatzi zure posta elektronikoa

Harpidetu

Gehien irakurriak

1 NBEk arrazoia eman dio andre bati indarkeria obstetrikoko kasu batean

EDURNE BEGIRISTAIN

2 «Eskolak seinalatu egiten ditu umeok; gizarreak, kondenatu»

ARANTXA IRAOLA

3 Gure minak

ONINTZA ENBEITA






4 Ehuneko bia

ANDONI EGAÑA


5 Kalma beltza Peruko kostaldean

JON ARTANO

JARRAITU

 Facebook
 Twitter
 Instagram
 Youtube
 RSS

LEGEA

Lege Informazioa
Pribatutasun politika
Cookieak
Zozketak
Lan eskaintzak
 Lizentzia
Publizitatea
Bidera zerbitzuak
MIDAS Media